

ADIBIDE ADIERAZGARRIA

Zer da adibide adierazgarri bat?

Adibide bat da, simulazio bat, eskatu nahi duzun kredituak nola funtzionatzen duen modu argi eta praktikoa ikusteko eta ulertzeko aukera ematen dizuna.

Kreditua eskatzen diozun bankuak edo finantza-erakundeak ematen dizu.

Zer informazio agertzen da adibide adierazgarrian?

- Eska zenezakeen diru-kopuru bat.
- Diru horrengatik ordainduko duzun interes-tasa; hau da, interes-tasa nominala (TIN).
- Epe bat diru hori itzultzeko.
- Adibidean azaltzen den kredituaren arabera hilero ordainduko duzun diru-kopurua; hau da, kuotak.
- Batzuetan, kredituaren beste gastu batzuk ere erakuts diezazkizuke, adibidez, irekitze-komisio bat.
- Kredituaren urteko tasa baliokidea (UTB), kredituaren urteko kostua barne; hau da, kredituaren interesa gehi finantzatutako gastuak.

Zergatik da garrantzitsua adibide adierazgarria?

Modu argi, praktiko eta errazean
ulertzen laguntzen dizulako
nola funtzionatzen duen eskatu nahi duzun kredituak.

Informazio horrekin guztiarekin, askoz errazagoa
izango da kreditua kontratatu nahi duzun ala ez erabakitzea.

Adibide adierazgarri bat baino gehiago baduzu,
alderatu egin ditzakezu,
zer kreditu kontratatu nahi duzun erabakitzeko.